

Intrukzio Teoria

Garapenaren ezaugarriak kontutan hartzen ditu (Enactivo, Icónico eta Sinbolikoa) baita instrukzioaren edukia (materiaren estruktura eta edukien sekuentziazioa) eta azkenik motibazioa eta esfortzua. Guzti honekin modu esanguratsu baten bitartez edozein adinetako ikasleei edozein materia irakasteko ahalmena izango du irakasleak.

Deskubrimenduaren ikasketa

Ikastea bakoitzak arazoak konpontzeko gaitasunak lortzean datza. Hau da, ikasleak berak lortuko ditu ezagupenak. Deskubrimenduaren ikasketak ez du esan nahi irakasleak ez direla behar. Hauek klasean ariketak jarri edo planteatuko dituzte ikasleak bilatu, manipulatu, esploratu eta ikertu dezaten. Horrela ezagutza berriak eta gaitasun orokorrak (arrazonamendu inductiboa), arauak nola formulatu, hipotesiak sortu eta informazioa bilatzeko gaitasuna lortuko dituzte.

IGNASI VILA

Ignasi Vila psikologia ebolutiboaren eta hezkuntzaren katedratikoa da. Bere bizitza osoan zehar hezkuntza elebidunarekin erlaziozuzen kontuetan ahalegindu da eta lan horien artean, ikuspuntu psikolinguistikoak elebitasunaren garapenean dago. Lan honetan, psikolinguistika erabiliko du elebitasunaren garapena aztertzeko eta era berean, honen erlazioa garapen akademiko eta kognitiboan.

Haur elebidun baten lehenengo etapan prestamo linguistiko aunitz ematen dira. Hasieran, bere hiztegia mugatua da memoriaren garapena baldintzatzen diolako, eta nahiz eta 3 urterekin adibidez bi lexiko ezberdinen aurrean dagoela jakin, esaldiak osatzean hizkuntza ezberdineko hitzak erabiltzen ditu hiztegiaren eskuraketa mugatua delako hainbat faktoreen bidez, eta horien artean lehenago aipatutako memoriaren garapena dugu. Hala ere, denborarekin hizkuntza bakoitzaren hiztegia bereizten du, sakontzen du eta modu egokian erabiltzen du. Horretarako ezinbestekoa da “una persona:una lengua” printzipioa jarraitzea. Hau da, helduak beti hizkuntza berdina erabiltzea haurraren erlaziozuzen eta horrela ez dira sortuko nahaste linguistikoak.

Ikasle elebidunak eta ikasle elebakarrak modu paraleloan eskuratzen dute sistema morfosintaktikoa. Elebidun batek (euskara-gaztelera) paraleloki eskuratzen ditu euskarazko eta gaztelera arauak.

Ikasle elebidunetan, ama-hizkuntza mantendu behar da hizkuntza “vehicular” bezala eta praktika pedagogiko bat suposatzen behar du. Hau lortu behar da, egoera negatiboak edota eskola porrota saihesteko.